

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Ekitaldi publikoetarako baliabide teknikoak lagatzeko erregelamenduaren behin betiko onarpena

2021eko urtarrilaren 25ean hasierako izaeraz onetsi zen ohiko Osoko Bilkuran ekitaldi publikoetarako baliabide teknikoak lagatzeko erregelamendua. Hasierako onespren horri dagokion iragarkia 2021eko otsailaren 12ko ALHAOn, 17. zenbakia duenean argitaratu zen, baita udaletxeko iragarkien taulan ere, eta hogeita hamar egun balioduneko jendaurreko informazio-epea hasi zen, alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak aurkeztu ahal izateko.

Jendaurreko informazio-epe hori amaitu denez inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu gabe, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 49. artikulua adierazten du orain arte behin-behinekoa zen erabakia, behin betiko onetsizat jo behar dela. Lege aurreikuspen hori lege-testu beraren 70. Artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoarekin osatzen da. Aipatu den artikulua oinarri hartuta, ekitaldi publikoetarako baliabide teknikoak lagatzeko erregelamendua oso-osorik argitaratuko da ALHAOn eta behin testu osoa argitaratuta agertu ostean indarrean sartuko da lege-testu beraren 65.2 artikuluan aurreikusitako hamabost (15) eguneko epea igaro ondoren.

EKITALDI PUBLIKOETARAKO BALIABIDE TEKNIKOAK LAGATZEKO ERREGELAMENDUA

Beharrezkotzat jo da kulturaren edo kirolaren arloko elkarteek sustatzen dituzten jai, kultura ekitaldi eta bestelako jardueretarako behar diren eta Udalari eskatzen dizkioten materialak lagatzeko eta zerbitzuak emateko erabilera- eta lagapen baldintza batzuk onetsi, hedatu eta aplikatzea, irizpideak batze aldera, eta, horrela, udal arlo desberdinen arteko irizpidide talkak ekiditeko.

Horretarako, Erregelamendu hau aplikatuko da:

Lehenengoa. Edozein ekitaldi publiko egin ahal izateko, eskumena duen udal organoaren baimena lortu beharko da, Jendaurreko Ikuskizunei eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearekin bat (otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren bidez garatua), eta betiere, Udalaren nahiz Udalaz gaindiko erakundearen arauak beteta.

Bigarrena. Baliabide teknikoaren lagapena eskatzeko inprimakia eskuragarri egongo da udal webgunean eta udaletxean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan. Inprimakia gutxienez 15 egun eta gehienez 90 egun lehenago aurkeztu beharko da., eta, beharrezkoa denean, espazio publikoa okupatzeko baimen eskaerarekin batera. Espazio publikoa okupatzeko baimen eskaeran, egingo den jarduera, hasteko eta bukatzeko orduak, erabiliko den espazioa, instalatuko diren elementuak eta abarrak azalduko dira, banaketa eta instalazio lanak antolatzeko.

Laudio Udalak eskaerak aztertu, eta dagozkion baremoak aplikatuko ditu. Ondoren, baliabide teknikoaren eskaera onartu edo ukatu den jakinaraziko dio eskatzaileari.

Eskaerak aztertzen diren bitartean, Audio Udalak egokitzat jotzen dituen dokumentu, txosten edo azalpen osagarriak eskatu ahalko dizkie eskatzaileei eskaera xeheki ebaluatu ahal izateko.

Hirugarrena. Udalak ez du bere gain hartuko inongo erantzukizunik ezinbesteko arrazoiengatik edo Udalari egotzi dakizkion arrazoiengatik onartutako materialak ezin badira eman edo onartutako lanak ezin badira egin.

Laugarrena. Audio Udalaren Zerbitzuak eta Auzoak Zerbitzuak kontrolatuko ditu udal jabetzako materialen lagapenak.

Bosgarrena. Material hauek laga ahalko dira.

- Agertokiak. Zerbitzuak eta Auzoak Zerbitzuak egingo ditu muntatze-lanak, estalkiarenak eta eskailerarenak barne. Egon litezkeen gainerako kostuei dagokienez, hau egingo da.

- Argindar-hargunearen kostua aurretiaz kalkulatu da, eta Udalak ahalmena izango du bere gain hartzen duen ala ez erabakitzeke (horretarako, esanbidez adierazi beharko da baliabide teknikoan lagapenean). Ez baditu kostu horiek bere gain hartzen, pertsona eskatzaileari jakinaraziko dio argindar hargunea instalatu eta ordaintzeko beharra.

- Audio Udalak ez dauzkan sorgailuak erabili behar badira, horiek erosi edo alokatzeko kostua pertsona eskatzailearen kontura izango dira, hortik erator litezkeen gainerako kostuekin batera.

- Oro har, gainerako gastu gehigarriak pertsona eskatzailearen kontura izango dira, behintzat, baliabide teknikoak lagatzeko baimenean ez bada esanbidez adierazten Udalak bere gain hartuko dituela.

- Ibilgailuak. Udal ibilgailuen erabilera lagatzeko, beharrezkotzat jo beharko da eta udal langile batek eskuragarri egon beharko du bere ordutegitik kanpo gidari-lanak egiteko.

- Karpak. Audio Udalaren jabetzako karpak salbuespen kasuetan baino ezingo dira laga, behar bezalako justifikazioa emanda eta, betiere, Udalak bere eskumenak erabilita ulertzen badu lagatzea beharrezkoa dela egingo den ekitaldiaren interes orokorrari nahiz karpa erabiltzearen egokitasunari erreparatuta. Lagatzearen, muntatze-lanen, erabileraren edo desmuntatze-lanen ondorioz gasturen bat sortzen bada, erakunde eskatzailearen kontura izango da, Udalak ez badu kontrakorik adierazten esanbidez.

- Hesiak.
- Aulkiak.
- Mahaiak eta banku tolesgarriak.
- Taulak eta astotxoak.
- Korrante-egokigailuak.
- Plataformak (2x1m.).
- Ur-mahukak.
- Edukiontziak.
- Su-itxalgailuak.
- Argindar-luzagarriak.
- Konoak.
- Trafiko seinaleak.

Ez da material suntsigarriak lagako, esaterako, bridak, balizatze-zinta, zarama poltsak eta antzekoak.

- Txosnetarako baliabide materialak eskatzen badira: Beharrezko materialak laga aurretik, ekitaldiaren antolatzaileek instalatuko den txosnaren dokumentazioa aurkeztu beharko dute, baita kokapenaren krokis zehatz bat ere. Horren ostean, behar bezala muntatu izana egiaztatu beharko da, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onestekoan xedatutakoa betetzeko.

Nahi baldin bada Udalak ur edota argindar hargunak ipintzea, esanbidez eskatu beharko da (aurretik kostuen zenbatespena eginda), eta Audio Udalaren esku egongo da bere gain hartzea (bere gain hartzen badu, esanbidez adierazi beharko da baliabide teknikoan lagapenean) ala gastu horiek pertsona eskatzailearen kontura uztea.

Oro har, gainerako gastu gehigarriak pertsona eskatzailearen kontura izango dira, behintzat, baliabide teknikoak lagatzeko baimenean ez bada esanbidez adierazten Udalak bere gain hartuko dituela.

Seigarrena. Baliabide teknikoak lagatzean, baldintza eta betekizun hauek bete beharko dira:

- Lagatako materialak udal biltegian emango dira, edo, eskatzaileak hala zehazten badu, ekitaldiaren kokapenetik gertuen dagoen lekuan. Edonola ere, erakunde antolatzaileko pertsona kreditaturen bat joan beharko da lagatako materiala hartzera eta lagapena dokumentatzera. Erakunde antolatzaileak izango du materiala euren beharren arabera banatzeko ardura.

- Materialak erabili ostean, jaso ziren leku berean utzi beharko dira. Udal langileek materialen lagapena egiterakoan adieraziko dute zer egun eta orduan hartuko diren bueltan materialak. Datu horiek emate-albaranean jaso beharko dira, lagatako materialen xehetasunekin, kopuruekin, lagatz datarekin eta pertsona hartzailearen nahiz ordezkatz duen erakundearen datuekin batera.

- Materiala pertsona eskatzaileari ematerakoan, dagokion emate albarana sinatuko du eta, une horretatik aurrera, bera izango da materialaren arduraduna, eta, beraz, Udalaren giltzarrapoa bere jabetzako batez ordeztu ahalko du. Materiala jaso nahiz itzultzerakoan, pertsona eskatzailea edo erakundeko beste pertsonaren bat egon beharko da bertan, izan ere, itzultzen den materiala emandakoarekin bat ez badator, materiala ordeztu edo ordeztearen gastuak bere gain hartu beharko ditu. Lagatako materialak apurtuta edo zikin itzultzen badira, konponketa- eta garbitze gastuak ere eskatzailearen kontura izango dira.

- Interesdunek jasotzeko eta Udalari itzultzeko eragiketak laneguneko 08:00etatik 13: 00etara bitarteko ordutegian egin beharko dira.

- Udal langileek materialaren egoera egiaztatuko dute materiala itzultzerakoan; erakundeko pertsona bat ere bertan egon beharko da une horretan, hala badagokio, materiala ondo itzuli izanaren egiaztagiria sinatzeko. Edozein arrazoi dela medio materiala itzultzeko unean ez badago erakundeko pertsonarik, udal langileek erakundearen giltzarrapoa apurtuko dute (erakundeak aldatu duen kasuetan), eta materialaren inbentarioa egingo dute. Inbentario hori baliozkotzat joko da ondore guztietarako.

- Jatorrizko lekura itzultzen ez diren material guztiak euren prezioaren arabera zenbatetsiko dira. Prezioak udal biltegiko inbentarioan daude jasoak, beraz, erakunde antolatzaile arduradunari erreklamatu zaio eratorritako zenbatekoa edo falta den materiala ordezte.

- Materialak itzultzen ez badira, erakunde antolatzaileak ezingo du zerbitzu hau erabili hurrengo hiru urteetan. Materiala ematen den egunetik aurrera zenbatutako hiru hilabeteko epean antolatzaileek falta den materiala ordaindu edo ordezten badute, ez da aplikatuko azken zigor hori.

- Udal materiala erabiltzen den guztietan, delako jardueraren hedapenean eta propagandan aipatu beharko da Laudio Udala laguntzailea dela.

Zazpigarrena. Laudio Udalak irizpide hauek aplikatuko ditu materialak nola banatu erabakitzeko:

1. Lehenik eta behin, Udalaren nahiz udal zerbitzu desberdinen beharrei erantzungo zaie. Udalaren beharrak izango dira Udalak berak antolatutako ekimenetatik eratorritakoak, ez Udalak laguntzaile papera duen ekimenetakoak.

2. Bigarrenik, kulturaren, gizartearen edota kirolaren arloko elkarte, talde edo erakundeen eskaerak hartuko dira kontuan, betiere, legearekin bat eratuak badaude, eta udalerrian Udalak lagundutako doako ekimenak bideratzeko badira.

3. Hirugarrenik, kulturaren, gizartearen edota kirolaren arloko elkarte, talde edo erakundeen eskaerak hartuko dira kontuan, betiere, legearekin bat eratuak badaude, eta udalerrian Udalak lagundutako ordainpeko ekimenak bideratzeko badira.

- 4. Laugarrenik, kulturaren, gizartearen edota kirolaren arloko elkarte, talde edo erakundeen eskaerak hartuko dira kontuan, betiere, legearekin bat eratuak badaude, eta udalerrian Udalaren laguntzarik gabeko doako ekimenak bideratzeko badira.
- 5. Bosgarrenik, kulturaren, gizartearen edota kirolaren arloko elkarte, talde edo erakundeen eskaerak hartuko dira kontuan, betiere, legearekin bat eratuak badaude, eta udalerrian Udalaren laguntzarik gabeko ordainpeko ekimenak bideratzeko badira.
- 6. Seigarrenik, gure udalerrian udal honen babesak duten doako jarduerak aurrera eramateko partikularrek aurkeztutako eskaerei erantzungo zaie.
- 7. Zazpigarrenik, udal honen babesik ez duten eta gure udalerrian doakoak ez diren jarduerak aurrera eramateko partikularrek aurkeztutako eskaerei erantzungo zaie.
- 8. Zortzigarrenik, udal honen babesak duten eta gure udalerritik kanpo doakoak diren jarduerak aurrera eramateko legez eratuta dauden kultur, kirol eta gizarte elkarte, elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskaerei erantzungo zaie.
- 9. Bederatzigarrenik, udal honen babesik ez duten eta gure udalerritik kanpo doako jarduerak aurrera eramateko legez eratuta dauden kultur, kirol eta gizarte elkarte, elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskaerei erantzungo zaie.
- 10. Hamargarrenik, gure udalerritik kanpo doakoak ez diren jarduerak aurrera eramateko legez eratutako kultur, kirol eta gizarte elkarte, elkarte edo erakundeek aurkeztutako eskaerei erantzungo zaie.

Irizpideak aplikatu ondoren, bi erakunde edo gehiagok eskaera onartzeko aukera badute, baina Udalak ez badu biei erantzuteko beharrezko elementuak, dagoen materialaren banaketa adosten saiatuko da, baina adostasunik ez badago, eskaera lehenago egin duen erakundeak izango du lehentasuna. Horretarako kontuan hartuko den data izango da materialak lagatzeko eskaera Udalaren sarrera-erregistroan aurkeztu zenekoa.

Zortzigarrena. Laudio Udalak aukera izango du materialen balioaren ehuneko 20ko fidantza ezartzeko, udal biltegiko inbentarioan jasotako balioen arabera kalkulatuta. Fidantzak ezingo du inolaz ere gainditu lagatako materialen kostuaren ehuneko 20. Materiala itzulitakoan eta egoera onean dagoela egiaztatutakoan itzuliko da fidantza.

Laudio, 2021eko apirilaren 8a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE